

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA

Hirigintzaren, Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren arloko koordinatzaile nagusia kargutik kentzea

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko ekainaren 14an egindako eratzte-bilkuran, Hirigintzaren, Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren arloko koordinatzaile nagusia kargutik kentzea onetsi zen.

2015eko ekainaren 15ean onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak Alvaro Iturritxa Velez de Elburgo Hirigintzaren, Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren arloko koordinatzaile nagusi izendatzea, Gasteizko Udaleko Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoan xedatutakoaren ildotik.

Araudi horretan berariaz arautzen dira zuzendaritza organo motak, horien zereginak zein izendapen erregimena, eta horrekin lotuta, 44. artikulua honela dio:

“1. Tokiko Gobernu Batzarrak izendatu nahiz kargutik kenduko ditu koordinatzaile nagusiak eta zuzendari nagusiak nahiz antzeko organoak”

Eta 2. paragrafoan honela jarraitzen du:

“Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 130.3. artikuluan xedatutakoaren arabera izendatu beharko dira”

Gasteizko Udaleko Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoaren 44. artikulua Tokiko Gobernu Batzarrari aitortzen dio zuzendari nagusiak izendatu eta lanpostutik kentzeko eskumena.

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124.4.b) artikulua — Tokiko Gobernu Eraberritzeko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua — xedatutakoarekin bat etorriz, alkateari dagokio udal administrazioaren zuzendaritza, eta ondorioz, Gasteizko Udalaren alkateak honakoa proposatzen dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki proposamena

1. Álvaro Iturritxa Vélez de Elburgo Hirigintzaren, Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren arloko koordinatzaile nagusiaren kargutik kentzea, 2019ko ekainaren 14tik aurrerako ondorioekin.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko ekainaren 25ean

Alkatea

GORKA URTARAN AGUIRRE